# ITSASONDOko
# TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA
# **2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK**

ITSASONDOKO UDALA

***Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua***

*Laguntza teknikoa:* ***ELKARREKIN 21***

TA21EKO BEHATOKIA OBSERVATORIO AL 21 GIPUZKOA

Elkarrekin 21

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

ORAIN GIPUZKOA

# Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.

**24 urte beranduago,** esanguratsua da **Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.**




2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:

**Aduna, Alkiza, Arama, Amezketa, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena** (eskualde mailako ekintza-plana), **Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.**

# Nolakoa da **gure udalerriko ekintza-plana**?

**8**
**Helburu estrategiko**

**88**
**Ekintza**

**5**
**Udal-eragile ezartze-lanetan**

## Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batezbestekoarekin alderatuz, **txikiagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikatuta dauden eragile-kopurua** lurraldeko batezbestekoa baino **baxuagoa** da.



# Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

**%27** ezarri da Lehen 2 urteetan

**%9**ko hazkundea 2014 -2015 epealdian

## Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **zerbait baxuagoa** da desiragarria den **helburuko** balioarekiko, baina **altuagoa da** urte horretan lurraldeko **batezbesteko balioarekiko**



# Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?



# 2015ean amaituta eta amaitzen dauden ekintza adierazgarri batzuk:

1.2.3. Herriko obretan herritarrak hartzeko baldintzak jarri.

2.7.2. Herri zerbitzuen liburuska argitaratu, herriko argazkia izango dena kanpotik etortzen direnentzat

3.1.1. Herriko egoeraren azterketa sakona egin: zenbat ume herrian, zenbat herriko eskolara eta zenbat kanpora, honen zergatia, etab. Aztertuz

4.4.2. Zuntz optikoa edo adsl azkarra ekarri.

5.2.3. Herri barruko bidegorria egin

7.1.1. Argiteria publiko eraginkor eta iraunkortasuna helburu hartuta, beharrezko auditoria egin

8.1.2. Buzoneatze zerbitzua berreskuratzea

6.2.1. Ur autonomia lortzeko beharrezko baldintzak zein diren aztertu (hornidura, segurtasuna, etab.)

# 2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

2.5.2. Herriko medikuarekin bildu, Osasun arloan Itsasondon ikusten dituen beharrak aztertzeko
2.5.7. Urteko kirol plangintza landu, adostu eta lan banaketa egin eragileen artean.
3.1.2. Azterketatik abiatutako Plangintza herriko haurrak herrian bertan eskolaratzeko
8.2.3. Herriko talde ezberdinen arteko harremanak hobetzeko jardunaldiak antolatu

# Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila



# 2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

**EKONOMIA IRAUNKORRA ETA ENPLEGUA BULTZATZEA:** **%13**ko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- lanbidera bideratutako prestakuntzaren sustapena
- herriko lanpostuen sustapena

**LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA IRAUNKORRA:** **%13**ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- lurzorua berrantolatzea
- hiri eta natur inguruneak antolatu eta arautzea
- paisaia, natura eta kultura ikuspuntutik intereseko eremuak identifikatu eta babestea
- herria oinarrizko zerbitzuez hornitzea

**MUGIKORTASUN IRAUNKORRA ETA GARRAIO PUBLIKOA SUSTATZEA:** **%13**ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- garraio publikoa hobetzea
- motorrik gabeko garraiobideak sustatzea
- irisgarritasuna bermatzea

# Partaidetza TA21en baitan:

PARTE-HARTZE BIDE NAGUSIA TALDE ERAGILEA eta 3 BATZORDE IREKIAK IZAN DIRA

PARTEHARTZAILE KOPURUA:
LURRALDE ANTOLAMENDUKO
10 SAIO (65 PERTSONA)
ONGIZATEKOA
10 SAIO (55 PERTSONA)
HERRI BIZITZAKOA
10 SAIO (109 PERTSONA)

LANDU DIREN GAI NAGUSIAK
BEHEKO KALEKO URBANIZAZIOA, AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK, ...

TALDE ERAGILEAREN 2 BILERA ETA BATZORDE IREKI BAKOITZAREN 10 BILERA ANTOLATU DIRA, 30 GUZTIRA

PARTE HARTU DUTEN ERAGILEEN ARTEAN:
UDAL POLITIKARI, TEKNIKARI, ELKARTEAK, IKASTETXEA HERRITARRAK,...

# Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (www.itsasondo.eus web gunean eskuragarri)

